

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Aurrekontuen
ordua**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzen telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Herritarren ekarpenen garrantzia.....3

Auzoz auzo, entzutera.....4

Sarrerak eta gastuak, eskutik.....6

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren
Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak
atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu
edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian,
astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik,
ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara,
etenik gabe eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Herritarren ekarpenen garrantzia

Arrimatzen ari da urte bukaera, eta, ondorioz, hurrengo urteari begira ere jarrita dago udala. Urte berriari ekin aurretik, egin beharreko aurren-aurreneko gauza aurrekontuak prestatzea izaten da. Izan ere, aurrekontuetan jasotzen da zertan erabiliko duen udalak diru publikoa. Sailez sail eta batzordez batzorde egiten dira bilerak, gero zenbakitara ekartzeko ase beharreko premia guztiak.

Alabaina, ahalik eta zerbitzu publiko onenak eskaini ahal izateko, herritarrek zer ekarpen edo lehentasun dituzten jakitea ere ezinbestekoa iruditzen zaio Azpeitiko Udalari. Horregatik, aurtan ere, auzoz auzo bilerak antolatuko ditu azaroan. Horrez gain, postontziak jarriko ditu kalean, herritarrek beren

Udalarentzat ezinbestekoa da herritarren lehentasunak ezagutzea, ahalik eta zerbitzu publiko onenak eskaintzeko.

proposamenak idatz ditzaten. Ekarpenak Internet bidez egiteko aukera ere egongo da.

Abenduko udalbatzarrean landuko ditu udalak 2026ko aurrekontuak. Aurrez, dagoeneko onartuak ditu datorren urteko ordenantza fiskalak, izango dituen diru sarreren estimazio bat egin ahal izateko.

Auzoz auzo, entzutera



Alde Zaharreko bizilagunekin egindako bileretako batean, trastelekuak eskatu zituzten auzotarrek, espazio arazoak zituztelako etxeetan; Nuarben, auzo lokal baten premia zutela aipatu zuten, eta aparkalekuena ere bai. Postaz egindako ekarpenetako batean, eraikin publikoetan kiribil magnetikoa jartzeko proposamena egin zuen herritar batek. Beste batek, berriz, ondasun higiezinaren gaineko zergan hobariak eskatu zituen eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak lortzen zituzten eraikinentzat.

Aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren barruan egindako proposamenak dira horiek guztiak, adibideetako batzuk; gerora, kontuan hartu ditu udalak, eta martxan jarri ere bai. Urtero, asko izaten dira jasotzen dituen ekarpenak, eta guztiak onartzea ez da posible izaten. Aztertu, ordea, guztiak egiten ditu, eta erantzuten ere saiatzen da.

ZENBAKI HUTSAK BAINO GEHIAGO

Aurrekontuak dira udalaren norabidea markatzen duten tresna nagusia. Aurrekontuen bidez erabakitzen da zer proiektu egingo diren, zer zerbitzu indartuko diren eta zein arlotan inbertituko den. Horregatik, datorren urterako aurrekontuak prestatzen hasteko garaia iritsi den honetan, Azpeitiko Udalarentzat oso garrantzitsua da herritarrek zer lehentasun dituzten jakitea.

Horretarako, udal ordezkariak bilerak egingo dituzte, auzoz auzo, herritarrekin.

Udalak ekarpen asko jasotzen ditu urtero, eta guztiak aztertzen saiatzen da.

11 bilera izango dira guztira, erdigunetik kanpoko auzoetan nahiz Alde Zaharrean eta Sanjuandegin. Bilera horietan, azken urtean auzoan egindako lanen berri ere eman ohi dute zinegotziek, eta bestelako gai, kezka edo kontuez hitz egiteko aukera ere egoten da.

Aurrez aurreko bileretara joaterik ez dutenek beste bi bide ere izango dituzte ekarpenak egin ahal izateko.

Alde batetik, postontziak jarriko ditu udalak herriko sei puntutan: udaletxean, igerilekuan, liburutegian, Urrestillan, Jose Artetxe kalean eta Urbitarte auzoan. Norbere proposamenak paperean idatzi, eta postontzi horietan sar ditzakete herritarrek. Azaroaren 21era arte egongo dira. Internet bidez ere egin ahal izango dira ekarpenak, helbide honetara idatzita: **www.azpeitia.eus/kontaktua**

Bestelako gai, kezka eta kontuez hitz egiteko aukera ere egoten da bileretan.



AUZO BILEREN DATAK

- **Azaroak 5.** Alde Zaharra. Basazabalen.
- **Azaroak 5.** Oñatz. Elizako lokalean.
- **Azaroak 5** Lasao. Auzo lokalean.
- **Azaroak 6.** Loiola. Loiolako elkartean.
- **Azaroak 6.** Sanjuandegi. Baigera tabernan.
- **Azaroak 10.** Aratz Erreka. Auzoko tabernan.
- **Azaroak 11.** Elosiaga. Añota sagardotegian.
- **Azaroak 11.** Urrestilla. Jubilatuen lokalean.
- **Azaroak 12.** Matxinbenta. Taberna gaineko lokalean.
- **Azaroak 12.** Nuarbe. Auzo lokalean.
- **Azaroak 13.** Landeta. Kiroldegian.

*** Bilera guztiak 19:00etan izango dira.**



Sarrerak eta gastuak, eskutik



**Zergak, tasak eta prezio publikoak
%2 igoko dira datorren urtean**

Datorren urteko aurrekontuak prestatzen hasi aurretik, egoten da beste mugarri garrantzitsu bat ere: udal tasak, zergak eta prezio publikoak adostea. Azpeitiko Udalak urriko ohiko udalbatzarrean onartu zituen 2026. urterako ordenantza fiskalak, aho batez.

%2 igoko dira zergak, tasak eta prezio publikoak. Leire Goenaga Ogasun batzordeburuak eman zituen igoera horren azalpenak: "Gure helburua eta betebeharra da herritarrei ahalik eta kalitate handieneko zerbitzu publikoak eskaintzea. Horretarako, beharrezkoa da udalaren sarrerak eta gastuak proportzio berean joatea". Aipatzekoa da, herritarrei bizimodua garestitu egin zaien modu berean (azken datuen arabera, inflazioa %2,8koa da EAEn), udalari ere igo egin zaizkiola eskaintzen dituen zerbitzuen kostuak.

BI SALBUESPEN

Igoera orokorra %2koa izango den arren, badaude bi salbuespen: zaborraren tasa eta kiroldegiko eta igerilekuko zerbitzuen tasa. Bata zein bestea %5 igoko dira.

Europar Batasunaren Hondakinen Esparru Zuzentarauaren arabera, hondakinen bilketaren kostuak ez du udalaren aurrekontuetan eraginik izan behar; hau da, ezin du defizitarioa izan, eta herritarrek beren gain hartu behar dute kostu hori. Aurtendik dago indarrean araua, eta betetzen jarraitu ahal izateko igoko da tasa hori %5. "Gaur egun familia baten zaborraren urteko tasa 166,64 eurokoa bada, datorren urtean 8 euro gehiagokoa izango da".

Europako zuzentarau horrek zabor gehien sortzen duenak gehiago ordaindu behar duela ere esaten du.



Horregatik, azterketa sakonagoa egitea ere erabaki dute Urola Erdiko mankomunitateko zazpi udalek. Datorren urtean gauzatu nahi dute azterketa.

Igerilekuko eta kiroldegiko zerbitzuetan, norbanakoei hilean 18,47 eurotik 19,39 eurora igoko zaie kuota, eta familia kuotak dituztenei 28,71 eurotik 30,15 eurora. Igoeraren arrazoiak aipatu zituen Goenagak:

“Zerbitzu defizitarioa da udalarentzat, urtetan hala izan da, sarrerak ez dira nahikoa gastuak estaltzeko, baina ez dugu nahi defizit hori handitzen joatea, eta horregatik izango da igoera gainerako tasetan baino hiru puntu handiagoa. Kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitu nahi dugu”.

HOBARIAK ETA LAGUNTZAK

Igoera horiek herritar guztiei ez dietela berdin eragiten jakitun, hainbat hobari ditu Azpeitiko Udalak, diru sarreraren arabera aplikatzen direnak. Orain arte dauden hobariak bere horretan mantenduko ditu udalak, diru sarreraren zenbatekoak eguneratuz. Hobari berri bat ere jarriko

du indarrean: efizientzia energetikoaren A edo B mailako etiketak lortzen dituzten etxebizitza eraikinei aplikatuko zaie, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan.

Horrez gain, udal laguntzak ere badaude zergen eta tasen kostuei aurre egiten laguntzeko. Gizarte Zerbitzuen bidez kudeatzen dira.

Laburbilduz, Goenagak adierazi zuen “kalitatezko zerbitzu eta baliabideak eskaintzen jarraitzea” dela Azpeitiko Udalaren lehentasuna. “Horretarako beharrezkoa da zerga, tasa eta prezio publikoetan proposatutako igoera horiek egitea”.

Orain arte dauden hobariak mantenduko ditu udalak, diru sarreraren zenbatekoa eguneratuz.



Energia Bulegoa

943 11 98 06
energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus